



## «Euskaldunok elikatzen ditugu gure hizkuntzari buruzko mito asko»

**Beatriz Fernandez** • Hizkuntzalaria

Beatriz Fernandez hizkuntzalariak euskararen eta gaztelaniaren arteko antzekotasun gramatikalak aztertu ditu, erreferentzia eta adibideen laguntzaz, 'Euskera para castellanohablantes' liburuan.

**Julen Aperribai**

Hizkuntza guztien artean daude antzekotasunak, Beatriz Fernandez arabera (Portugalete, Bizkaia, 1964). Sarri, «erraietara» jo behar izaten da horiek antzemateko. Bere liburu berriaz eta hizkuntzen arteko eraginaz aritu da.

**Zor bat kitatzeko asmoz idatzi zenuen liburua, aurkezpenean azaldu zenuenez. Zein da zor hori?**

Liburua gurasoei eta aitona-amoniei eskainita dago. Santurtziko [Bizkaia] Bihotz Gaztea ikastola sortu zutenen artean izan ziren gurasoak, eta erdi klandestinoak ziren eskola haietara eramaten zituzten umeetako bat naiz ni. Gure etxeko hizkuntza ez da euskara, gaztelania baizik, eta eurek, gaztelania ez ezik, euskara ere oparitu zidaten: inoiz jaso nezakeen oparirik onena.

**Euskararen eta gaztelaniaren arteko antz handia dela diozu. Zertan, batez ere?**

Gure gramatika ereduak hizkuntzen arteko antzekotasunak azpimarratzen dira nagusiki, eta gramatika unibertsal bat eraikitzen saiatzen gara. Aldeak daude, batez ere, hizkuntzei kanpotik begiratzen zaienean, eta ez hainbeste hizkuntzen erraietara bidaiatzen denean. Hitzen hurrenkerari begiratzen badugu, badirudi euskara eta gaztela-

nia kontrajarriak direla, baina hitzei ematen diogun zentzua bera da bi hizkuntzetan. Beharbada, hitzak elkarri lotzeko estrategian kontrarioak gara, baina ez horrenbeste perpausak zein atalek osatuko dituzten erabakitzerakoan.

**Edozein hizkuntzarekin izan dezake antza, beraz, euskarak. Zergatik hautatu zenuen gaztelania?**

Ama hizkuntza dudalako gaztelania. Umetan ikasi nuen euskara ikastolan, eta banuen lotura sentimental bat gaztelania hitzuneekin. Euskal paradisuera eramanez ninduten gaztelaniadunak izan ziren. Eskertza keinu bat ere bada, ahalegin hori egin dutenei.

**Antza erakusteak onurarik ekarri diezaioke euskarari?**

Euskararen irakaskuntzari ez dut uste onurarik ekarri dionik desberdintasunetan erreparatzeak. Hiztun berriak uxatzeko estrategia da euskara zerbait arras desberdina eta inguruko inongo hizkuntzarekin zer ikusirik ez duen zerbait dela esatea. Euskararekiko interesa duenari eta ikasteko ahalegina egiten duenari erakutsi behar zaio badagoela bide bat horretarako bere ama hizkuntzetatik abiatuta.

**Euskararen inguruko mito asko al dago erdal hitzunen artean?**

Guk geuk, euskaldunok elikatzen ditugu gure hizkuntzari buruzko

### LOTSABAKO

**Liburu bat?** *Barbarian Days*, William Finneganena.

**Liburuak paperean ala digitalean?** Paperean, dudarik gabe.

**Zein hizkuntza ikasiko zenuke gustura?**

Kinyaruanda edo Burusxaskia.

### ATZEMATEKORAKO AURRERA



GORKA RUBIO / ARGAZKI PRESS

mito asko. Gurtzeak ez dakarkio onik hizkuntzari. Daukagun guztia eskaini behar diogu hizkuntzari, baina itsutu gabe. Bestela, gauza asko ez ikusteko arriskura eramanez gaitzakete mitoek. Munduko hizkuntza guztiak dira bereziak, eta euskara beste edozein hizkuntzaren parekoa da. Hori azpimarratzea komeni zaigu, bai euskaldunoi eta bai gaztelania hitzunei.

**Euskal hitzunez ere baliagarria izan al daiteke liburua?**

Euskaldunek ere irakur dezakete, noski. Kontuan hartu behar da euskal hitzunen gehienak elebidunak direla.

**Gaztelaniak euskararen duen eragina zenbateraino da positiboa?**

Begi bistakoa da hizkuntzek elkarri eragiten diotela. Ezer gutxirako bali du hori ona ala txarra den esateak: ezin da eragotzi. Euskaldunok egin behar duguna da hizkuntza zaindu eta konpromisoak hartu.

**Besteak beste, zinema, literatura eta gastronomiako erreferentziekin arindu duzu testua.**

Ez dakit zenbat liburu idatzi ditudan euskaraz, eta beste zenbat editatu. Bada, nire kuadrillakoek ez dute bakar bat ere irakurri. Lan oso teknikoak dira gureak, eta gure irakurle taldea oso txikia da. Orduan, saiatu naiz bestelako irakurle bategana heltzen, eta, horretarako, ezin daiteke gramatikaz hitz egin, testua nolabait goxatu gabe.